



Ehunka lagunek eman diete babesa Tolosako Gerontologikoko kaltetuei

ATXIKIMENDUAK ▶ Talde, alderdi politiko eta sindikatueta hainbat ordezkari izan dira manifestazioan

ERABAKIA ▶ Egoiliarren senideek adierazi dute adinekoen zentrotik ez direla «mugitu ere egingo» ▶ 4



Atzoko manifestazioa. N. LATABURU



Inauterietako azken eguna dute gaur Lizartzan eta Areson, ekintza askorekin

ARESO-LIZARTZA ▶ Inauterietako azken eguna dute gaur lizartzarrek eta aresoarrek, eta hainbat ekintzarekin ospatuko dute bi herrietan azken eguna. Atzo, aldiz, puska biltzen jardun zuten baserriz baserri. Argazkian, Lizartzako piraten ontzia. J. ASTIBIA ▶ 7

IZASKUN ZUBELDIA ▶ KORRIKALARIA

«Errepidean arituta, mendia eskatzen dit gorputzak»

Oraingoz ez dio korrika egiteari utzi nahi ▶ 23



Korrikalari amezketarra. I. GARCIA

ESTILOAK
honekin?

ziber ileapaindegia
☎ 943 67 22 44

GURE LANAZ GOZA EZAZU, ESKAINTZEN DITUGUN BERRIKUNTZEZ ETA PERTSONEN ARTEKO HARREMANETAN OINARRITUTAKO ETENGABEKO HOBEKUNTZAZ BALIATUZ

Sta Maria Plaza, 1 • 20400 TOLOSA

OTSAILAK 2 1.º GO URTEBETETZEAN

ZATOZ ETA OPARI EDER BAT JASOKO DUZU

E-mail: honekin@honekin.com / Web: www.honekin.com

GUZTION ARTEAN LORTU DUGU

osm Informatika ANDRES FERRERO KOJO Burujintza

Argi Knataldegia **beotibar** Elektrogaiak

Rotulazioak **PLAZOLA** Erremontaria

HOTZ-BERO Klimatizazioa **ZUENTZAT** Elektrizitatea

ANDOAIN Marmol - Granitoak **dominguez** Margoak - Lakatuak

IGNACIO BALERDI Igalkentza **ITURRIOZ** Arantz

IGNACIO GOIKOETXEA Dekorazioak

UZTURRETIK ▶
AGUSTIN AMIANOGanbara
ttikia
miatuz

Eskaileretan gora abiatu naizenean nire txantxo jantzia nuen buruan, baina bidean zertara nindoan ez nekiela geratu naiz. Eskailera mailak bizitzaren parean jarri ditut konturatu ga-be. Urruti geratu zait ganbara ttikia, gure bizitzak ere hamailka maila edo koska baititu bidean; zer eta, gora iritsitakoan disfrazatuta jantzeko. Edota, gehienetan, behe-beheko mailan mozorrotu eskaileretan oso gora egitearren. Goitik begiratu maiz gero, jantziz aldatzeko Inauterian zain egon gabe.

-Aita, peluka urdina non den ba al dakizu?

-Hik jaso izan bahuen, jakingo hukeen orain.

Ganbara ttiki honetan horrenbeste traste nola sar daiten ere... Erabili ezean hautsak hartzen ditu; gure burutazioak ere hautsak hartuta ez badaude, uda zein negu izozturik diraute, ganbara ttikitik mugitu ere egin gabe. Asmo berri bat azaltzen badut, agian ez dut asmatuko, edota berri zaharra izango da eta ez diot inori harridurarik sortaraziko. Norbaiten abileziaren zain geratzea bezalakorik...

-Ama, lagunekin ibiltzeko baimenik izango al dut Inauterietan?

-Ez al dun beste konturik?

Baina aldarrik gabeko bidea ere ez da erraza bezain segurua izaten; lastozko kapela eta jantzia eskuetan hartuta pozik abiatu garenean, irrist! Bada gehienetan traba egiteko prest agertuko den zerbait, pausua jauzi bihurtu eta altxatzeko indarrak gabe utziko gaituena.

-Joxe, saski zaharra konponduko zenuela ez al zenigun esan?

-Mekauen! Seko ahaztu zait!

Tira, sormenerako egunak dira hauek, inork ezagutu gabe ere, handikeriarik ga-be, bakar batzuen agudeziak irribarretsu ibiltzeko egunak. Halaber, burutazio horien denen artean itxaropen fimiño bantentzat lekuri ba ote?

-Joanita, nire pailazo jantzia ikusi al duzu nonbait?

-Urte osoan kendu al duzu bada?



Paisaiak zuri-zuri, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan

ELURRA ▶ Elurra eta paisaia zuri-zuriak izan dira aste honetako ezaugarri Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan. Batzuetan besteetan baino oztopo gehiago sortu ditu, baina ez du elurteak aparteko kalterik edo arazorik sortu. Herririk garaietan eskolara joan gabe geratu dira haurrak eta gaztetxoak, eta jolaserako aukera izan dutenez, gustura izango ziren bizpahiru egun haietan. Oraindik ere Tolosaldeko bide

bazterrak zurituta dira, eta Leitzaldekoek zeharo elurtuta jarraitzen omen dute. Eguraldi iragarpenek hobera egingo duela diote; ikusi beharko... Elurretako argazkiak ikusi nahi dituenak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAIEN web orrialdean ditu eskura: www.tolosaldeko-hitza.info. Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan ateratako argazki mordoa ikusteko aukera izango du bertara sartzen den edonork. IMANOL GARCIA

IZASKUN ZUBELDIA ▶ KORRIKALARIA

«Zailena zure erritmoari
eustea eta bukaerara
indartsu iristea izaten da»

Gustura ez ezik, oso ondo ere aritzen da korrikan Izaskun Zubeldia: helduen mailan sartu zenetik parte hartutako Gipuzkoako eta Euskadiko hiru txapelketak irabazi ditu

MANOL GARCIA

Izaskun Zubeldia hiru urtetan jarraian Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak izan da helduetan, hau da, 35 urtetik gorako mailan. Orain astebeite lortu zuen azkeneko Euskadiko Txapelketa Amurrión. Tolosa CF klubean aritzen da, Xabi Arratibelen gidaritzapean. Gaur Idiazabalgo krosean hartuko du parte.

Nola hasi zinen mundu honetan?

Berandu hasi nintzen. Beti kirola egin izan dut: mendia, bizikleta... Baina serio atletismoan hasi nintzen 30 urte ingururekin, bi haurrak izan ondoren. Askok gustatu izan zait kirola eta senarrak ere asko animatu

nau. Bera txiki-txikitatik ibili da lasterketan. Hain motibatuta ikusten ninduen komentatu zidala ea zergatik ez nuen klub batean izena ematen entrenamenduak eta egiteko eta horrela hasi nintzen.

Eta bi seme-alabek jarraituko dute gurasoen bidea?

Semea pilotan dabil sartuta. Krosetan ere parte hartzen du eta ikusten zaio zaletasuna duela kirolarekiko. Alabari oraindik ez zaio hainbesteko zaletasuna ikusten, baina egin dezatela gustuko dutena, hori da garrantzitsua.

Euskadiko kros motzeko txapelak izan zara helduen mailan orain gutxi. Espero zenuen txapelketa lortzea?

Aurrean ibiliko nintzela pen-

tsatzen nuen. Gipuzkoako txapelketa nahiko erraz lortu nuen eta esperantzak baneuzkan, baina irabazteko nahiko zaila ikusten nuen.

Nola izan zen lasterketa?

Batzuk oso indartsu hasi ziren, baina gero beherakada etorri zitzaizkien. Nik erritmoari eutsi nion. Hiru bira ziren eta guztira lau kilometro. Kontrolatu egin behar duzu eta indartsuegi hasten bazara bukaerara ez zara ondo iristen. Hori da zaila, zure erritmoa mantentzea eta bukaerara indartsu iristea. Nik orokorrean bukaera ona daukat eta azkenean espreinean irabazi nuen.

Beraz, besteek ez bazuten alde egiten bazenekien aukerak zenituela irabazteko.

Eusten banuen ikusten nuen aukera izango nuela eta halaxe izan zen. Eta noski, oso pozik lortutakoarekin.

Espainiako Txapelketan ere aritu zara.

Lehenengo urtean joan nintzen Orensera eta harrituta geratu nintzen lortutako emaitzarekin. Nire mailan zazpigarren egin nuen eta orokorrean hamalaugarren. Aurtengorako ere ilusio handia nuen, baina urrutiegi da, Palman jokatzeko baita, eta seguruenik ez naiz joango. Lastima, motibatuta eta gustura ari naizelako.

Txapelketetara joaten zarenean zuk ordaintzen dituzue gastuak?

Izena emanda nago Donostia-ko helduen klub batean ere eta horiek zerbait ordaintzen didate, baina ez da asko izaten.

Beraz, afizio handia behar da?

Afizio eta gogo handia behar izaten da.

Nolako entrenamenduak egiten dituzue?

Orain gutxi eman nuen izena Tolosako klubean eta Xabi Arratibel da entrenatzailea. Lehen Txindokin aritzen nintzen, baina aldatu egin nuen klubez. Eta oso gustura, entrenamenduak ezberdinak dira eta gehiago gustatzen zaizkit. Gusturago nabil entrenatzen. Aurre-



JESUS ALTUNA
ARKEOLOGOA

«Berastegi ez da leku makala zientziarekiko afizioa sartzeko; arkeologiak disziplina artekoa behar du»



ANGEL CUERDO
ABENTURAZALEA

«Zorionez, garaiz ikusi genuen tsunamia etortzen eta gehienok azkar babestu ginen»

IRITZIA ▶ RAMON IRAZU (ORIA-GOIERRI ESKUALDEKO ELA SINDIKATUKO IDAZKARIA)

Itunari ez

Estatuen arteko Ituna besterik izan ez arren, konstituzioa deitzen diote, herritarrek despistatu nahian edo. Baina ez gaitzen nahastu. Testu hau ez da sortu Europako Herrien edo bertako hiritarren eskubideak bermatzeko. Alderantziz, oso bestelakoak dira Itunak babesten dituen edukia.

Pare bat adibide: «...Europar Batasunak eskainiko die hiritarrei merkatu bakar bat, non kompetentzia, librea eta faltsukeri gabekoa izango den» (1.3 Art.).

«Errespetatuko ditu estatuen identitatea nazionala, eta, bereziki, bere lurraldearen osotasuna mantentzeko dituen funtzioak» (5.1 Art.).

Nahiko argi dago ezta? Aipatu dudana lehenengo artikulua araberan, enplegua mantentzeko ez da posible izango Administrazioaren laguntza jasotzea, hori kompetentzia faltsutzea izango litzatekelako. Beraiantzat, enplegu maila ez da garrantzizkoa, ia-ia hobe langabezia maila altu xamar egotea, lana behar duten merkeago egingo baitute.

Berehala antzematen zaie: Neoliberalismoa dute doktrina, eta merkatua, Jainko bakarra.

Bigarrenok dionaren arabera, berriz

(jakinda, 'funtzio' horiek hemen ejerzitoaren esku daudela), presta gaitzen: Euskal Herriak noizbait kontsulta baten bidez (Ibarretzek deituta, agian?) Espainiatik bereiztea erabakitzen badu, Europar Batasunak ejerzitoari emango dio babesa, eta ez euskal herritarrei.

Dena dela, ez dago ustekabeko handirik Bruselas aspalditik ari delako neoliberalismoaren bidea jorratzen, multinazionalak ditu gogoan eta ez herritarrak. Bostehun lobbi industrial eta berrehundik gora multinazional daude kokatuta Europar instituzioetako egoitzen inguruetan (1). Are gehiago, Itunaren edukia gauzatzeko eratu zuten komisioren burua, ('Convencion' deitzen diote, berriro ere jendea nahasi nahian) Valéry Giscard d'Estaing ultrakonserbadore fama-

tua izan zen. Famatua batez ere, Afrikako Bokassa diktadorearen eskutik opari modura diamanteak jaso zituela eta izendatzerakoan, lehendik kobratzen zituen soldatetatik aparte, hilabeteko 20.000 euro, 12 laguntzaile, gastuak eta luxozko suite bat hotelean eskatu zituela jakin zelako.

Argi dagoena zera da, neoliberalismoa izurritea bihurtu dela Europako instituzioetan, baina ez bakarrik Europan, hemengo instituzioek ere, doktrina berberari jarraitzen diote buru belarri, horregatik itxi nahi dute Tolosako Zaharren Egoitza.

Ez daukate inongo arazorik gehien irabazten dutenei zergak jaisteko, eta ondoren Gizarte Zerbitzuak murrizteko, esanez, ez dagoela dirurik bere horretan mantentzeko.

Bestelakoa da guk eraiki nahi dugun Europa. Herrien borondatea, enplegua, Zerbitzu Publikoak... babestuko dituen Konstituzioa nahi dugu. Ez orain eskaintzen zaigun Ituna. Neoliberalak baiezkoa eskatzen digute: arrazoi bat gehiago ezezkoa emateko.

(1) Iturria: *Corporate European Observatory*.

NEOLIBERALISMOA

«Izurrite bilakatu da Europako instituzioetan, eta hemengoek ere doktrina berari jarraitzen diote; horregatik itxi nahi dute Tolosako Zaharren Egoitza»

PERTSONALKI ▶

▶ Amezketan jaioa ▶ 37 urte ditu ▶ Villabonara ezkondu zen
▶ Lanbidez zerbitzaria ▶ Azken hiru urteetan krosetako Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna izan da helduen mailan.

Gustuko korrikalaria. Rosi Talavera: 45 urterekin oraindik punta-puntan dabil. **Beste kirolrik?** Aerobik-a, baina ez da bateragarria korrikarekin eta azken hau aukeratu nuen. **Errepidea ala mendia?** Errepidean aritu ondoren, orain gorputzak mendia eskatzen dit.

NOIZ ARTE?

«Ez dut datarik jarri. Orain gustura nabil eta ez daukat burua jarrita noiz utziko diodan lasterketa egiteari»



rantzean ez dakit nola joango den baina oraingoz behintzat gustura nabil. Egutero jarduten dut, atsedena hartuz astean behin. Kroserako ordu bete bueltan aritzen naiz.

Zer izaten da gehiago, kilometroak egitea edo denbora jakin batean aritzea?

Denboraren arabera jartzen dizkit entrenamenduak. Dena pultsazioen bidez neurtzen da. Erritmo aldaketak egiten dira: hamabost minutu pultsazio motzagoekin, gero azkarragoekin eta horrela.

Zein da aurrean duzun hurrengo erronka?

Apirilaren bukaeran Loatzora

igoera eta jaitsiera egiten da. Azken hiru urteetan irabazi egin dut proba eta oso gustura aritzen naiz. Aldatzeko gogoan daukat eta mendian lasterketan hasteko.

Txapelketez gain non hartzen duzu parte?

Lasterketa herrikoietan aritzen naiz. Igandean —gaur— Idiazabalgo krosetan parte hartuko dut, adibidez. Urtean zehar lasterketen egutegi bat izaten dut. **Noiz arte jarraituko duzu lasterketan?**

Ez dut datarik jarri. Orain gustura nabil eta ez daukat burua jarrita noiz utziko diodan korrika egiteari.



IMANOL GARCIA

GERONTOLOGIKOAREN ITXIERA ▶

Ehunka lagun bildu dira Foru Aldundiaren erabakia salatuz

Tolosako Gerontologikoko senitartekoez adierazi dute ez direla zentrotik mugitu ere egingo; hainbat atxikimendu jaso ditu itxieraren kontrako manifestazioak



Gerontologikoaren itxiera salatuzko manifestazioa egin zuten ehunka lagunek Tolosako kaleetan; atxikimendu asko jaso zituen. NOELIA LATABURU

IRATXE ETXEBESTE

Ehunka lagunek egin zuten bat atzo, Tolosako Gerontologikoko Langileen Batzarraren, sindikatuen eta egoiliarren senitartekoen deia erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erabakia salatuzko iragarria zegoen manifestazioan. *Gerontologikoa ez itxi, no al cierre* zioen pankartaren atzean abiatu ziren eguerdian Triangulotik, eta manifestazioak aurrera egiten zuten heinean joan ziren herritarrek mobilizaziora biltzen.

Gerontologikoko langileak manifestazio buruan zirela, alderdi politikoetako ordezkariak: EAKo buru Onintza Lasa, Tolosa Bizirik-eko Antton Izagirre, EBKo Antton Karrera eta PSE-PSOeko Oscar Renedo; ELA, LAB, CCOO eta ESK sindikatuetako ordezkariak eta herriko hainbat talde eta erakundetako kideak izan ziren, besteak beste, Gerontologikoaren itxiera salatuzko ekimenean parte hartu zutenak. Aralar eta PP alderdiek eta USO sindikatuek ere atxikimendua adierazi zioten manifestazioari, eta baita Amaroz, Belate eta Alde Zaharrek auzo elkarteek, Iturritza, Harizpe, Tolosa CF, Oargi, Tolosako zine-kluba eta Hegoalde elkarteek eta Inmaculada eta Samaniego ikastetxeek ere.

Ixilik egin zuten manifestazioa zihozazenez Triangulotik Zumalakarregi kalerako bidea. Hara heltzean hasi ziren, ordea, Tolosako Gerontologikoa ixteko erabakiaren kontrako aldarriak: «Aiton-amonen etxea ez itxi», «*Mas respeto a los mayores*» eta «*Diputacion, solucion*» modukoak entzun zitezkeen. Gizarte Politikarako Foru Diputatu Esther Larrañagari erreferentzia eginez, hauek ere esan zituzten: «*Esther, tu tambien seras mayor*» eta «*Esther, escucha, Tolosa esta*

en *lucha*». Korreo kaleko erdialdera iristean erraldioen eta buruhandien konpartsarekin egin zuen topo manifestazioak, eta jende ilara handiak sortu ziren. Orduan oihukatu zuten ozonen manifestazioko kideek. Langileek eskuorriak banatu zizkieten herritarrei, Foru Aldundiak Tolosako Gerontologikoaren harira hartutako erabakiaren berri emanez, eta Pablo Gorosabel kaletik barna Triangulo aldera egin zuen berriro manifestazioak. Amaieran, eskerrak eman zizkieten antolatzailerak bertara bildutakoei eta haien atxikimendua adierazitako guztiei, eta eskualdeko adineko pertsonentzat Tolosaldean bertan nahiko plaza edukitzea eskubidea dutelako». Gerontologikoko langileek gogor gaitzetsi zuten, beste behin, Foru Aldundiaren jarrera: «Aste honetan bertan hedabi-

deetan azaldu da Gipuzkoako Foru Aldundiak 7,5 milioi gehiago jarriko dituela egoitza plazak sortzeko, eta, beste alde batetik, garestiegi iritelen dela argudiatuta Tolosakoa itxi egin nahi dute orain arte eredu izan denean». Adinekoen egoitzak pribatizatu nahia leporatzen diote Gerontologikoko langileek Foru Aldundiari, eta adinekoentzat ere zerbitzu publikoak nahi dituztela argi utzita, «denon artean lortuko dugu astakeria hau ez gertatzea», esan dute.

Bide horretan «tinko» jarraituko dute, halaber, Tolosako Gerontologikoko egoiliarren senideek. Ostegunean izan zuten azken bileran erabaki bat hartu zuten, gehiengoz: Gerontologikotik mugitu ere ez direla egingo. Bost egoiliar Donostia-ramango dituzte datorren aste honetan, eta gainerakoekin zer gertatuko den ez dakite senitartekoez oraindik.

deetan azaldu da Gipuzkoako Foru Aldundiak 7,5 milioi gehiago jarriko dituela egoitza plazak sortzeko, eta, beste alde batetik, garestiegi iritelen dela argudiatuta Tolosakoa itxi egin nahi dute orain arte eredu izan denean». Adinekoen egoitzak pribatizatu nahia leporatzen diote Gerontologikoko langileek Foru Aldundiari, eta adinekoentzat ere zerbitzu publikoak nahi dituztela argi utzita, «denon artean lortuko dugu astakeria hau ez gertatzea», esan dute.

Bide horretan «tinko» jarraituko dute, halaber, Tolosako Gerontologikoko egoiliarren senideek. Ostegunean izan zuten azken bileran erabaki bat hartu zuten, gehiengoz: Gerontologikotik mugitu ere ez direla egingo. Bost egoiliar Donostia-ramango dituzte datorren aste honetan, eta gainerakoekin zer gertatuko den ez dakite senitartekoez oraindik.

deetan azaldu da Gipuzkoako Foru Aldundiak 7,5 milioi gehiago jarriko dituela egoitza plazak sortzeko, eta, beste alde batetik, garestiegi iritelen dela argudiatuta Tolosakoa itxi egin nahi dute orain arte eredu izan denean». Adinekoen egoitzak pribatizatu nahia leporatzen diote Gerontologikoko langileek Foru Aldundiari, eta adinekoentzat ere zerbitzu publikoak nahi dituztela argi utzita, «denon artean lortuko dugu astakeria hau ez gertatzea», esan dute.

AZOKA ▶

Aste honetako azokan ere izan du hotzak eragina

Udaberriko hainbat produktu hasi dira azaltzen: besteak beste, udaberrilorea

PABLO ALBERDI

Aste honetako hotzaren eragina nabaritu zen atzoko azokan, batez ere produktu batzuk kaltetuta zeudelako: azaloreak, azak eta romaneku azak, adibidez, ederri sufritu dute izotzarekin. Porrak, azenarioak, eskarolak edota letxuak, ordea, kalitate bikainekoak ziren. Berrikuntza gisa agertu ziren udare eta Mendiola sagarrek arrakasta izan zuten. Berdura plaza koloretsu zegoen, lore eta landare ikusgarriekin. Udaberriloreek urtaro aldaketa datorrela iragarri zuten.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Porrak	2,40	-
Larrosondoa mini	6,50	-
Krabelin bikia	3,60	-
Kizkur aza	6,00	-

Bertako produktuak		
Oilaskoa (3 aste)	1,50	2,50
Oilaskoa (4 aste)	1,60	-
Ahatea	2,50	4,00
Urria	3,00	-
Intxaurra	3,00	-
Sagar gorria	1,50	-
Tolosako babarru.	8,00	-
Zerba	1,00	2,00

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	-
Patata	1,50	-
Tipula	1,75	2,00
Letxua	1,00	-
Arrautzak	3,50	-
Behi gazta	10,00	-
Azukrea	3,35	-

hitza **txokoa** ^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

MUSIKA ▶

JOXEMI SAIZAR

«Gustura» Txinatik bueltan

Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin egin duten bira «esperientzia interesgarria» izan dela diote Ekhiñe Olanok eta Iñaki Letamendia tolosarrek

Gabon desberdinak izango zituztela iragartzen zuten joan aurretik eta halaxe izan dira. Non, eta Txinan. «Benetako abentura» espero zutela adierazi zioten orduan Hitzari. Atzerrira egiten zuten lehen bidaia zen. Musika jotzera, gainera. «Esperientzia interesgarri» honen berri jaso dugu orain, Txinatik bueltan.

Ekhiñe Olanok eta Iñaki Letamendia tolosarrek Euskal Herriko Gazte Orkestrako kideak dira. Perkusioa eta tronpa jotzen dute, hurrenez hurren. Abenduaren 22tik urtarrilaren 9ra Txinan ibili dira EGOko beste 78 lagunekin, hainbat kontzertu ematen. «Gustura», «pozik», «jende oso jatorra», «errepikatzeko moduko esperientzia» dira behin eta berri beren ahoetatik ateratzen diren espresioak bidaiaren balantzea egiterakoan.

Lehen astean Zibo, Guangzhou, Jiangmen eta Nanhai hirietan zazpi kontzertu ematea eta bigarren astean turismo pixka bat egitea zen joan aurreko plana. Eta halaxe izan da. Txina herrialde handia da eta iparraldetik hegoaldera zeharkatu dute bi gazte tolosarrek egin duten biran. «Hotz handia egin digu eta kontzertuetan ere jende oso hotza da han. Ia ez dute txalorik egiten», adierazi du Ekhiñe Olanok. «Kontzertu bat kanpoan eman genuen, urbanizazio batean. Sekulako hotza pasatu genuen», gogoratzen du Iñaki Letamendiak. Hala ere, artistikoki «emaitza ona» lortu dutela diote biek.

Artistikoki arrakasta

Cesar Alvarez izan dute zuzendari gonbidatua eta emanaldiak Strauss, Aragues, Bizet, Li Huanzhi, Dvorak, Barbieri, Brahms, Mancini eta Sarasateen lanak jo dituzte, besteak beste. Kontzertu nagusia Guangzhouko Concert Hall aretoan egingakoa izan da. «Inoiz ez bezalako arrakasta» izan dela azaldu dute EGOko

arduradunek. Txinan ez dago musika klasikoko kontzertuak entzutera joateko ohiturarik. Horren ondorioz gauza harri-garriak ikusi dituzte: entzule batzuk janaria eramaten zuten aretoa, beste batzuk eskuko telefonoa piztuta edukitzen zuten, eta asko eta asko Bizarzuriz jantzita zeuden. Hala ere, kontzertuak «asko gustatu» zitzaizkiela eta. «musikari eta pertsona gisa» hazi egin direla diote EGOren arduradunek.

Atsedenerako tartea


Turismorako eta aisiarako tartea ere izan dute musikari gazteek Txinara egindako bidaietan. Bisitatu dituzten tenpluekin txundituta etorri dira Olanok eta Letamendia. «Bospasei ikusi ditugu eta oso politak dira, benetan», diote ahobatez. Bisitatu egiteko zailtasunak aipatu dituzte: «Ingelesa oso jende gutxi daki eta bi interprete besterik ez genuen orkestra osorako. Hotelean taxia hartu eta tenpluetara zuzenean joaten ginen», dio Olanok.

Erosketena izan da ondo jorratu duten beste alor bat, «dena oso merke» zegoelako. Tratua egin behar izaten zuten. «Batez ere arropa erosi dut. Baita hango musika ere. Talde txinatarren musika modernoko diskoak erosi ditut. Instrumento tipikoak erabiltzen dituzte», dio perkusiojoleak. «Flauta batzuk erosi ditut, bat polifonikoa eta banbuz egina bestea», dio tronpajoleak.

Aurrera begira, udan berritoki elkartuko da EGO entsatzeko eta kontzertu batzuk emateko. Bi tolosarrek ez dakite oraindik han izango diren. Bitartean bere zereginekin jarraituko dute: Letamendia Zaragozan goi mailako ikasketak burutzen eta Errenteriatik txistulari bandan



Gazte Orkestrako tronpajoleak Txinan; eskuinean, Ekhiñe Olanok tolosarra. HITZA



Iñaki Letamendia, bigarrena eskuinetik hasita, Txinako eta hemengo lagun batzuekin. HITZA

jotzen eta Olanok Donostian ikasten Goi Mailako Kontzertabatorioan. Argi dute biek helburua: «Orkestra profesional batean jotzea». Bide horretan, beste esperientzia bat izan dute. Txinan.

IRIARTE
J A T E T X E A
BERROBI

INAUTERIETAKO
MENU BEREZIA
26 €

Erreserbak • 943 683 078

Helduen Heziketa Iraunkorra (E.P.A.-H.H.I.)

Bigarren lauhilekorako Matrikula irekia, urtarrilaren 31tik, otsailaren 4ra.

- DBH Graduata
- Informatika. Internet.
- Unibertsitateko sarrera 25 urtetik gorakoentzat
- Etorkinentzako gaztelaniazko ikastaroak
- Oinarriko ezagueretan sakontzea
- Eta gainera... Hitzaldiak, kultur irteerak, eskulanak, egur-talla... Eta Ikasleen Elkarteak antolatuta: yoga

Ikastetxe ofiziala (Eusko Jaurlaritzakoa) eta doakoa.

Igaralde, 23 • TOLOSA • Tel.: 943672660
Errebote plaza • VILLABONA • Tel.: 943690312

"TROIKA-TOLOSAKO INAUTERIAK" (I)

ET INCARNATUS GANBARA ORKESTRA

FESTA LURRIKOAREN EROMEN LIRIKOA

et incarnatus

CO. BERRIA JARDUN TALDEA

HAUR JAIALDIA ▶

Kolorea eta algara nagusi haur jaialdian

Poxpolo eta Mokolo, eta Alberto Handia magoaren emanaldiek aretoa bete zuten

NOELIA LATABURU

Super heroiak, frutak, pailazoak, kaldereroak, animaliak... denetarik ikus zitekeen atzokoa Leidor aretoan izandako haur jaialdian. Umeek primeran igaro zuten arratsaldea eta horietako batzuk saria besapean bueltatu ziren etxera.

Aitor Elduaie eta Maier Lopezegiri pailazoen gidaritzapean, algaraz eta kolorez jantzitako arratsaldea izan zen atzo Tolosan, Inauterien etorrera iragarritz. Leidor aretoa jendez lepo zegoen eta antolatzaileak pozik azaldu ziren bertaratu zen jendea ikusita. Dena den, adierazi zuten, urtez urte haur partaideen kopurua jaisuten ari da. «Aurreko urtean 50 ume inguruk hartu zuen parte; aurtengoan, berriz, 40 eskas izan dira».

Haurrek euren txantxoak erakusteko aukera izan zuten. Eszenatokira igo ziren, epaileen begien aurrean desfilatzeko. Ondoren, Poxpolo eta Mo-

kolok alaitu zuten giroa, euren ikuskizunarekin. Alberto Handiak ere ahozabalik utzi zituen haurrak eta gurasoak, bere magiarekin.

Amaitzeko, sari banaketa

Jaialdia amaitu aurretik epaimahiak bere epaiaren berri eman zuen. Mozorrotutako umeak bi taldetan banatu zituzten, bost urtetik gorakoak, batetik, eta bost urte baino gutxiagoak, bestetik. Zazpi sari banatu zituzten guztira. Bi taldeen artean ume jatorrenari saria, lehen taldean beste bost sari mozorro onenari, eta azken sari bat beste taldearentzat; hau ere txantxo onenari.

Hauek izan ziren irabazleak: ume jatorrenaren saria Eneko Corralentzat izan zen, kalabaza txantxoarekin. Bost urteko gorakoenen taldean, lehen saria Xabier eta Aitor Goikoetxeak eskuratu zuten, Tolosako Babarrun Kofradiaren mozorroarekin; bigarren saria Leire eta



Poxpolo eta Mokolo algara eragin zuten bertakoen artean. N.L.



Alberto Handiak ere ahozabalik utzi zituen denak. NOELIA LATABURU

Gorka Oriondo, Eguberrietako zuhaitza eta zutargiarentzat izan zen; hirugarrena, Olaia Etxeberriarentzat, erreginareen belarritakoko lorearen mozorroarekin; laugarrena 1900. urteko Chicagoko Varela familia-

rentzat izan zen; eta bosgarren Urko, Alain eta Unax Odriozola izan ziren, pailazoz jantziak, azken horiek. Beste taldeko saria, berriz, Eneko eta Lander Alonsok jaso zuten, Santxo Panza eta Kixoteren jantziekin.



Kaldereroek kaleak zeharkatu zituzten, hotza lagun

KALDEREROAK ▶ Zartagiak eta mailuak gogor astindu zituzten atzo Tolosan bildu ziren kaldereroek. Hotzak ez zituen bertaraturakoak kikiildu eta herriko kaleetan barrera aritu ziren kalejiran Inauterien etorrera iragarritz. 19:30ean irten zen

kaldereroen desfilea Santa Maria kaleetik eta denek bat eginik abestu zuten Hungariatik datozela dioen kantu zaharra. Ostegun Gizenerako atzerako kontaketa hasi da dagoeneko. Festa giroa iragarriko duen txupinazoa bertan da... NOELIA LATABURU

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetalde. Medikua: 65 23 39

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- ▶ Ertzaintza: 53 88 20

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Santa Maria, I. Nafarroa etor., 2 (Tolosa). 943 65 46 10.
Erbiti, O. Lizarraga, 7 (Leitza). 112.
Bihar. Olarrega, J. M. J. Iraola, 10 (Tolosa). 943 67 24 38.
Gimeno, A. Elbarrena, 52 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetalde. 687 41 00 22

anoetalde@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Hezitzailea. Artikutzako Natur Eskolan lan egiteko hezitzaile bat behar da. Ingurumen heziketa ezagutzea edota esperientzia izatea eta EGA titulua edukitzea estimatuko da. Ezinbestekoa: gida-baimena, autoa eta informatikako oinarriko ezagutza. Interesatuak Curriculum Vitae-a bidali ondorengo helbide elektronikora otsailaren 3a baino lehen: artikutzanartura@begira.com.
Irakasleak. Irakasleak behar ditugu klase partikularrak emateko. Ikasgai eta maila guztietarako. Curriculum Vitae-a bidali helbide honetara: donostia@acadomia.es.
Aerobik-eko monitorea. Asteasuko kiroldegia aerobik-eko monitorea bat behar du. Telefonoa: 943 69 34 00. 18:00etatik 21:00etara.

ARESO-LIZARTZA ▶ INAUTERIAK



Lizartzako kaleak mota askotako mozorroz beteta egon ziren atzo, egun guztian zehar. JAIONE ASTIBIA



Suaren beroan, gaztainak janez ederki ibili ziren lizartzarrak. J. A.

Inauteri bete betean, gaur azken aukera

Bai Areson, bai Lizartzan, baserrietara eskera joanagatik, mozorroen erakustaldia egin dute herrian geratutakoek

JAIONE ASTIBIA

Goizean goiz atera ziren atzo lizartzarrak baserrietako eskera. Aurrena herrian barrena kalejira egin eta, txantxoek eta dantzariak puske biltzeari ekin zioten, txistularien doinuekin batera.

Areson, berriz, ez ziren hain goiztiar izan. Pixkanaka-pixkanaka gazteek, Pake toki elkartera hurbildu ahala, gosaria prestatzeari ekin zioten eta herriko gazte gehienak elkartu zirenean gosaldia egin zuten, kanpoan egiten zuen giro hotzari aurre egiteko edo baserrietarako bidea egiten hasteko indarrak hartzeko. Eguerdia baino lehentxeago atera ziren elurrez estalita zeuden mendi bideetan barrena, soi-

dua ere eramanez. Itzulerakoan, herriko festa eginen zuten, plazako musika eta herri afariarekin. Halaxe zegoen iragarrita, behinik behin.

Lizartzan, ordea, eskelariak joanak izanik ere, herrian bazen zer ikusia. Eguerdian, errotatik aterata, mozorroek eta gurdiek txarangarekin kalejira egin zuten herriko kaleetan barrena, taberna atarrietan geldialdiak eginez. Espaloietan begira zeudenek nahiz mozorrotutakoek, barrenei beroaldia emateko baliatu zuten aukera.

Motorrez gora eta behera zebiltzan *agenteen* aginduetara egon zen autoen zirkulazioa Lizartzan. Tartean piraten itsasontzi dotore bat ere agertu zen Araxes aldetik, edo suton-

doan puntua eginez eta gaztainak erre zebilen familia bat; kamineroak... Bestela mozorrotutako jendea ere bazebilen, indioak, futbolariak... Baina ez ziren jantzita zeuden bakarrak, herriko hainbat etxe ere egun hauetarako propio apaintuta ageri baitziren hantxerak.

Gaur, berriz, herrian ibiliko dira eskelariak biak hala bi herrietan. Areson bazkaria La-



Goizean ongi gosalduta atera ziren baserrietara aresoarrak. J. ASTIBIA

gun arteko kideek duten bitartean, Lizartzan herri bazkaria egiten dute. Arratsalde, trikitilariekin dantzan ibiltzeko aukera izanen dute aresoarrek. Eta Lizartzako plazan, berriz, Ihauteri dantzak ikusteko eta

dantza-sokan parte hartzeko bidea izanen da, joko, zozketa eta bestalako ekintzen artean. Inauteriak iluntzean bukatuko dituzte gaur, *ijitoa* erre batean; afaria eginez bestean. Lizartzan eta Areson, alegia.

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzaileak.

Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93. **Sukaldari laguntzaileak.** Plaza libreak eskoletan, egoitzetan, Eusko Jaurlaritzan. 943 65 01 93 telefonora deitu. **Gidariak.** Laster sarrerak udaletan eta Eusko Jaurlaritzan. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Peoiak,** elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93. **Haur Hezkuntza.** Plaza libreak

hautzaindegi publikoetan, haur eskoletan. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Ostalaritza.** Sukaldeko laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza finkoak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurlaritza. 943 65 01 93. **Laborategi** ingurumena, Osakidetza, araztegi. Plaza libreak udal, Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarako. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Basozainak.** Udal, Aldundia, Eusko Jaurlaritza, administrazio publikorako. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.



Villabona - Kultura



— Haur antzerkia —
PETER ROBERTS
'marratxo'

Urtarrilak 30 Igandea • Arratsaldeko 17:00etan
GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Villabona. Peter Robertsen *Marraxo* antzezlan, haurrentzat, Gurea aretoan. 17:00etan hasiko da eta sarrerak 4 euro balio ditu.

DEIALDIAK

Tolosa. Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketa 11:00etatik 13:00etara Tolosako Xake elkartearen egoitzan (plaza Berria 1, behe eskuina).

Tolosa. Babarrunaren Kofradiaren XVII. Kapitula: 10:00etan harrera kofradia gonbidatuei txistulariek alaituta Fronton kafetegian; 11:45ean desfilea udaletxeraino; 12:00etan ohorezko eta merituzko kofradeen izendapena udaletxean; 14:00etan bazkaria Fronton jatekian eta ondoren dantzaldia 20:00ak arte.

Tolosa. Maribel San Sebastian psikologoak hitzaldia emango du bihar, nerabezeroari buruz, 1. zikloko liburutegian. DBH 1., 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoei zuzendua. 18:30ean hasiko da solasaldia.

Tolosa. Bakearen aldeko kontzentrazioa. Bihar, 12:00etan Trianguloan. Hirukide ikastetxeak deituta, herritar guztientzat.

Tolosa. Maria Jesus Uranga familia terapeutak 0-6 urte bitarteko haurren eboluzioa: *Hitz ez bada ere, gauza asko esaten ari natzaizue* hitzaldia emango du etzi, Kultur Etxean, 19:00etan. Laskorain ikastolako Pedagogia Batzordearen eskutik.

INAUTERIAK

Tolosa. Haur Danborradako kosaken azken entsegua, Triangulo plazan, 15:30ean. Aiz Orratz-Veleta elkarteak antolatuta.

Tolosa. Inauterietako kontzertua, Musika Banda eta Udal Txistulari Bandarekin, 12:15ean Plaza Berrian (euria eginez gero Berdura Plazan).

Tolosa. Zaldunita bezperako danborradaren azken entsegua, etzi, Gorosabelgo aretoan, 20:00etan.

Tolosa. Udaltzaingoaren trafikolaguntzaileak hartu behar ditu Udalak Inauterietarako. 18 urte, Graduatu eskolarra, gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea eta euskara jakitea eskatzen dute. Izen-ematea udaletxean.

NOELIA LATABURU

Nork ez ditu inoiz San Blaseko erroskilak dastatu? Bada, aste-buru honetan aukera ezin hobea dago lehen aldiz probatzeko edo beste behingoz gozatzeko San Blas auzora gerturatuz gero. Bertan auzoko jaiak ospatzen ari dira, eta usadioari jarraituz, erroskilak ezin falta.

Atzokoan ez zuten asperetzeko aitzakiarik izan San Blasera gerturatu zirenek. Goizean gazteen txanda izan zen antolatut zituzten haur jolasekin. Arratsaldean, berriz, toka lehiaketa izan zen probintziako jendearentzat. Gau partean, amaitzeko, jai giroa izan zen Etxabe anaien trikitixa emanaldiari esker.

Gaur ere goizean goiz hasiko dira ekitaldiak auzoan, erroskilak eta guzti. Bertakoek begiratu hutsarekin apurtzen direla diote; hori ekiditeko ez dago jatea bezalakorik. On egin, beraz!

JAIK

Tolosa (San Blas). Diana 09:00etan Konpenezinak txarangarekin; meza 11:00etan; Amaroiko dantzariak 12:00etan; Arkaitz Iriarte eta Unai Otaño aizkolariak 12:30ean; Peñagarikano eta Egaña bertsolariak 13:00etan eta 18:00etan; eta trikitixa Etxabe anaiekin 18:30etik 21:30era.

KULTUR ASTEA

Ibarra. Mandubia-Beotegi-Ezki ibilaldia antolatuta Uzturpe ikastolaren Kultur Astearen egitarauaren barruan. Irteera 09:00etan Kultur Etxetik. Ondoren XVI. mendeko lgartubeiti baserrira bisita.

ZINEMA

Leizta. *El bosque.* 19:30ean.
Tolosa. *Obsesion.* Gaur, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30an eta bihar 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zineman.

Erroskilen festa

SAN BLAS ▶ Haur jolasak, toka lehiaketa, Etxabe anaien trikitixa emanaldia eta, nola ez, San Blaseko erroskilek osatu zuten atzoko egitaraua



Auzoko eta inguruko gaztekoen haur jolasekin gozatu zuten San Blas egunean. NOELIA LATABURU

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Mikel Zubiria (Berrobi). Gure mutil jatorrari, zure guraso eta anaiei partez.



AUPA OSKAR

Animo 7 egunean ere. Borroka da bide bakarra, lortuko dugu. Villabonako Segiko zure lagunak.



URTE ASKOAN

Egoitz. Zorionak Asierren eta familiaren partetik. Gaur 5 urte.



ZORIONAK

Haitez Jauregi Aristi (Tolosa). Bihar urtebete. Zorionak etxekoan partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!



URTE ASKOAN

June eta Beñat Intza Jauregi (Villabona). 4 urte beteko dituzte gaur. Muxu asko izeba Mariburen partetik.

HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA

Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA